

**Bilbon, 2004.eko otsailaren 27an**

**Batzar-agiria**

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,  
Andres Urrutia, Jagon sailburua,  
Miren Azkarate,  
Andolin Eguzkitza,  
Patxi Goenaga,  
Andres Iñigo,  
Jose Luis Lizundia,  
Txomin Peillen,  
Pello Salaburu,  
eta Piarres Xarritton

Pello Telleria, idazkariordea, eta Juan Jose Zearreta, kudeatzailea, zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Henrike Knörrrek, ahala Andolin Eguzkitzari, Jean-Louis Davantek, ahala Txomin Peilleni, Patxi Altuna, Patxi Ondarra, Ibon Sarasola.

Batzarra goizeko 10,18an hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

**1. Akta onartzea.**

Urtarrileko batzarraren akta, J.L. Davanten eta H. Knörren oharrekin, onartu egin da.

**2. Jagon Saileko Corpusa:** «Euskalkien erabileraz Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan» proposamenari egindako oharra erabakitzea. Puntuz puntu aztertu dira adierazpenaren pasarte guztiak, aldaketa batzuk eginez. 4.1. puntuari agertzen den *euron* hitzaren ordez *euren* jarri da, J.L. Lizundiaren kontrako botoaz.

**3. Hizkuntza arauak.**

**3.1. Hiztegi Batua:** erabakitako *atomika-aurpegi* zerrenda banatu da.

**3.2. Hiztegi Batua:** *aurpegiara-azalergia* zerrendan *aurre*-tik *auto*-ra egindako oharra aztertu, eztabaidatu eta erabaki dira.

**4. Esku artekoak.**

**4.1. Hezkuntza Ministerioko Literatur Sariketak.-** Urtero bezala, aurten ere Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kiroletarako Ministerioaren eskaria jaso da, berorrek 2004.ean antolatuko dituen Literatur Sariketarako Epaimahaietan Euskaltzaindiak bere ordezkariak izenda ditzan. Espainiar Letretako Sari Nazionalaren epaimahairako J.L. Lizundia izendatu da. Gainerako epaimahaikideen izendapena Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzordearen esku uztea erabaki da.

**4.2. Pedro de Yrizar jaunari buruzko hilberria.** Pedro de Yrizar euskaltzain ohorezkoaren hilberri-txostena prestatzea H. Knörri agintzea erabaki da.

**4.3. Lazarragaren testua.** Euskaltzainei Joan Perez Lazarragakoaren testuaren CD-ROM bana eman zaie, Gipuzkoako Diputazioaren opari. Era berean, hortik Euskaltzaindiak ateratako paperezko kopia inprimatuak ere banatu dira.

**4.3.1. Lazarragatarren berri.** Arabako euskal idazle aurkitu berri honen leinua, jatorriz Oñatikoa dela eta, Euskaltzaindiko Bibliotekako Zuzendariak, Pruden Gartzia, bertakoa izanik, idazlearen eta beraren familiaren berri jakingarri batzuk eskaini ditu. Bukieran, euskaltzainek hala nahi eta ahal izanez gero, Oñatira txango bat antolatzeko prest dagoela esan du, bertan aipaturikoen antzinako bizitokiak erakusteko.

**4.4. J.A. Arana-Martijaren osasunaz.** Oraintsu arte erakundearen diruzaina izan den euskaltzainaren osasuna dela eta, J. Haritschelharrek zorionez hobeki dagoela azaldu, eta jadanik etxean dela.

**4.5. Aldaketa 16-ren saria.** Euskaltzainburuak *Cambio 16* aldizkariak Euskaltzaindiari eskaini berri dion saria dela eta, Madrilen otsailaren 16an izandako ospakizunaren berri eman du. Han, Euskaltzaindiaren izenean J. Haritschelhar eta H. Knörr izan ziren, bai eta Miren Azkarate Kultur sailburua ere, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gonbidatu gisa. Antolatzaileek ezarritako aurkezle berezi batek euskaraz hitz egin zuen bertan. Antolatzaileei esker oneko gutuna bidaltzea erabaki da.

**4.6. El Correo Digital-en Saria.** Egun berean, otsailak 16, *El Correo* egunkariak antolaturiko web gune interesgarrienak saritzeko lehiaketa erabaki zen Guggenheim Museoa. Finalisten artean Euskaltzaindia izanik, bertan izan ziren X. Kintana, idazkaria; J.L. Lizundia, diruzaina; Iñaki Kareaga, informatikaria; J.J. Zearreta, kudeatzailea eta Amaia Okariz, prentsa arduraduna. Akademiari akzesit bat eman zitzaion, X. Kintanak jasoa.

**4.7. Nafarroako Gobernuarekiko Protokoloa.** Euskaltzainburuak Nafarroako Gobernuarekiko protokoloa otsailaren 20an sinatu dela azaldu du. Testuaren kopia bana eman zaie euskaltzainei.

**4.8. Jarraipen Batzordearen bilera.** Otsailaren 26an, goizean, Euskaltzaindiak bilera egin zuen Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioen ordezkariekin (Arabakoak bere ezin etorria adierazi zuen eta). Hitzarmenaren puntuak adostu ziren eta alde bietatik lehenbailehen sinatzeko asmoa erakutsi zen. Bilera berean Jaurlaritzakoek Euskaltzaindiak iazko diru-laguntza laster jasoko duela jakinarazi zuten.

**4.9. EUDELEkiko hitzarmena.** Batzar egun honexetan goizean egindako etenaldian Euskaltzaindiak EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearekin egindako hitzarmena sinatu zuen Euskaltzainburuak Karmelo Sainz de la Maza Arrola, Leioako alkate eta EUDELEko lehendakariarekin. Horren kopiak euskaltzainen artean banatu dira.

**4.10. J.M. Satrustegiren omenaldia.** A. Iñigok azaldu duenez, J.M. Satrustegi nafar euskaltzain zenduari omenaldi bat eskainiko zaio aurtengo martxoaren 28an Arruazuko bere jaioeterrian, Udalak antolatua. Euskaltzain guztiei haraxe joateko gomita egin zaie. Era berean, Manuel Irujo elkartearen aldizkaria banatu du A. Iñigok euskaltzainen artean.

Bilkura 2,35ean amaitu da.

Euskaltzainburua  
Jean Haritschelhar

Idazkaria  
Xabier Kintana